

KONPOSTAREN PLANA 2005-2016

Konposta egitea sustatzeko ekimena jarri zuen abian Urola Kostako Udal Elkarteak 2005eko urrian, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean.

2015etik 2016ra bitartean, hainbat jarduera eta deialdi egin ditugu eskualdeko herritarrei konposta egiteko aukera, prestakuntza, laguntza eta baliabideak eskaintzeko.

Konposta egiteko hainbat bide aukeratu dituzte eskualdeko herritarrek: batzuk etxean egiten dute (lorategian edo baratzen), beste batzuk bizilagunen artean, beste batzuk auzoan konposta egiteko eremuetan...

Konposta egiteko prest agertu diren familiei, batetik, prestakuntza (ikastaro labur bat) eta laguntza eskaini diegu (konposta egiteko gida, jarraibideak eta laguntza pertsonalizatua, jarraipen bisitak...) eta, bestetik, konposta egiteko konpostagailua, tresnak, egituratzailea (egur eta ezpal txikitua).

Konposta egiten duten familiak 2016ko abenduan

Urtez urte gora egin du konposta egitea erabaki eta beren hondakin organikoekin konposta egiten duten familien kopuruak. Hona hemen 2016ko abenduko datuak (konposta egiten duten familiak):

Herria	KONPOSTA ETXEAN	KONPOSTA AUZOAN	BIZILAGUNEN ARTEAN	BESTE BATZUK	GUZTIRA
Aia	66	0	14	25	105
Getaria	54	27	18	8	107
Orio	29	30	5	8	72
Zarautz	157	13	39	15	224
Zumaia	78	87	10	18	193
Guztira	384	157	86	74	701

- **384 familiak konposta etxean** egiten dute, baratza edo lorategian jarrita duten konposta egiteko gailuarekin. Familia horiei jarraipen bisitak egiten zaizkie (telefonoz, bertara joanda...) dituzten zalantzak argitu eta ahalik eta konpostarik onena egitea lortzeko.
- **157 familiak auzoan** egiten dute konposta, udalek eta Udal Elkarteak jarritako eremuetan. **14 eremu** daude eskualdean (Getarian 3, Orion 4, Zarautzen 1 eta Zumaian 6).
- **86 familiak bizilagunen artean egiten dute**, bizilagunen komunitateko eremuan.
- **74 familiak beste era batera egiten dute**: pila, abereekin...
- **Familiak eta pertsona kopurua**: EUSTATen datuen arabera (2006), Gipuzkoako familiek batez beste 2,65 kide dituzte. Horren arabera, gure eskualdean 1.857 pertsona inguruk egiten dute konposta (701 familia X 2,65 kide).

Hondakin organikotik konposta



Orio, Pelotari kalea: auzoan konposta egiteko eremua

